BERMEOKO UDALEKO, KIROL PATRONATUKO ETA GIZARTE ONGIZATEKO UDAL PATRONATUKO ZENBAIT ERAIKINEN GARBIKETA ZERBITZU KONTRATUAREN ADMINISTRAZIO-BALDINTZA ZEHATZEN ORRIAK

ARAUBIDE HARMONIZATUPEKO PROZEDURA IREKI BIDEZKO ESLEIPENA

Espediente zenbakia: KON_IRE_0004

LABURPEN TAULA

ADJUDIKATZAILEA

Erakundea: Bermeoko Udala.
IFZ: P4802100J
NUTS kodea: ES213.
Telefono zenbakia: 94 617 91 00.
Faxa: 94 688 23 12
Helbidea: Irakaskintza 14-16, 48370 Bermeo (Bizkaia).
Helbide elektronikoa: antolakuntza@bermeo.eus.
Egoitza Elektronikoa: http://bermeo.eus

I. KONTRATUAREN ELEMENTUAK

1. KONTRATUAREN XEDEA

1.1 Xedea: kontratu honen xedea da Bermeoko Udaleko, Kirol Patronatuko eta Gizarte Ongizateko Udal Patronatuko hainbat eraikinen garbiketa burutzea.

1.2 Ase gura diren beharrizanak: lizitazio-espedientea izapidetzetik datorren administrazio-premia da eranskinetan aipatzen diren eraikinak zein instalazioak, eta baita bertan dauden ekipoak eta altzariak eguneroko garbitasun-egoera onean edukitzea, behar bezala erabiltzeko higiene- eta osasun-baldintza egokietan.

1.3 Loteak:

1. Lotea: Gizarte eta Kultura Etxea, Jose Antonio Egia Musika Eskola, Nestor Basterretxea Kultur Aretoa, Areilzako aldagelak, Landabaso industriguneko biltegiko aldagelak, Udaltzaingoaren egoitza, Lamerako komun publikoa, Almika auzoko komun publikoa, Talako komun publikoa, Txirrita kaleko komun publikoa, Erreten Lamerako komun publikoa, Kurtzio-Zarragoitxiko igogailua eta Udal azokako garajeak.
2. Lotea: Artza Udal frontoiaren eta Areneko Kiroldegiaren garbiketa.
3. Lotea: Gizarte Ongizaterako Udal Patronatuko bulegoen eraikinaren garbiketa.

1.4 CPV: 90911200-8 Eraikinen garbiketa zerbitzuak.

2. KONTRATU MOTA

- Modalitatea: Zerbitzuak.
- Erregulazio harmonizatupeko kontratua: Bai.
- Errekurtso berezia jar daiteke: Bai.
- Kontratu erreserbatua: Ez.

3. ORGANO ESKUDUNA

Tokiko Gobernu Batzarra.

SPKLren 61. artikuluaren eta II. Xedapen Gehigarriaren arabera, Kontratazio-organoa Bermeoko Udaleko Alkatea da, eta udalaren izenean jardungo du. Baina 2019ko ekainaren 21eko 1.479 zenbakidun Alkatetza Dekretuz onartutako delegazioen ondorioz, ahalmen hori Tokiko Gobernu batzarrarengan dago delegatuta.

4. LIZITAZIO ELEKTRONIKOA

Lizitazio honek, eskaintzak baliabide elektronikoen bidez aurkeztea baino ez du onartzen. Horretarako:

1.- Eskaintzak Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataforman dagoen lizitazio elektronikoko sistemaren bidez aurkeztuko dira: https://www.contratacion.euskadi.eus/

2.- Jakinarazpenak eta komunikazioak Euskadiko Kontratazio Publikoko Plataformaren bidez egingo dira eta/edo Bermeoko Udaleko egoitza elektronikoaren bidez: https://www.tramiteakonline.bermeokoudala.eus/

Hala ere, ahozko komunikazioa (edo posta elektronikoa) erabil daiteke prozeduraren funtsezko elementuei buruzkoak ez diren komunikazioetarako, SPKLren XV. Xedapen Gehigarrian eta harekin bat datozenetan ezarritako moduan.

5. KONTRATU IZAERA DUTEN DOKUMENTUAK

Esleipendunak bere proposamena aurkeztean bere gain hartzen dituen betebehar gehigarrien kalterik gabe, ondorengo dokumentu hauek kontratu izaera izango

dute: karatula, baldintza administratiboen agiriak, baldintza teknikoak eta kontratua formalizatzeko agiria.

6. KONTRATUAREN ARDURADUNAK

1. Lotea:
   Kontratuaren arduraduna: Zerbitzu Saileko Teknikaria.
   Helbide elektronikoa: zerbitzutek@bermeo.eus
   Kontratuaren jarraipen eta exekuzio arruntaz arduratzen den unitatea: Zerbitzu Saila.

2. Lotea:
   Kontratuaren arduraduna: Kirol Patronatuko Zuzendaria.
   Helbide elektronikoa: kirolzuzendaria@bermeo.eus
   Kontratuaren jarraipen eta exekuzio arruntaz arduratzen den unitatea: Kirol Patronatuko Administrazio Saila.

3. Lotea:
   Kontratuaren arduraduna: Gizarte Ongizateko Udal Patronatuko Zuzendaria.
   Helbide elektronikoa: residentzia@bermeo.eus
   Kontratuaren jarraipen eta exekuzio arruntaz arduratzen den unitatea: Gizarte Ongizateko Udal Patronatuko Administrazio Saila.

7. KONTRATAZIO MAHAIA

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2020ko uztailaren 28ko erabakiaren bidez, onartu zuen Tokiko Gobernu Batzarrari lagunduko dion Kontratazio Mahai Iraunkorraren izendapena. Osaera Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu dago (2020ko abuztuaren 20ko 159 zk. iragarkia) eta baita Bermeoko Udalaren kontratatzaile-profilean.

8. KONTRATUA BURUTZEKO EPEA

Kontratuaren epea: 2 urte
Luzapen posibleak eta epea: Urtez urte luzatu daiteke, gehienezko bi luzapenarekin
Gehienezko epea, luzapen posible guztiak barne: 4 urte

9. KONTRATUAREN BALIO ESTIMATUA

9.1 Lizitazio prezioa:

1. Lotea: 356.349,90 euro, BEZa kanpo.
2. Lotea: 195.395,38 euro, BEZa kanpo.
3. Lotea: 25.476,86 euro, BEZa kanpo.

Guztira (BEZa kanpo): 577.222,14 euro.

9.2 Aurreikusitako aldaketen kopurua:

1. Lotea: 142.539,96 euro, BEZa kanpo.
2. Lotea: 78.158,16 euro, BEZa kanpo.
3. Lotea: 10.190,76 euro, BEZa kanpo.

Guztira (BEZa kanpo): 230.888,88 euro.

9.3 Luzapenen prezioa:

1. Lotea: 356.349,90 euro, BEZa kanpo.
2. Lotea: 195.395,38 euro, BEZa kanpo.
3. Lotea: 25.476,86 euro, BEZa kanpo.

Guztira (BEZa kanpo): 577.222,14 euro.

Balio estimatua guztira (lote guztiak, luzapenak eta kontratua aldatzeko aurreikusitako aukera guztiak barne): 1.385.333,16 euro, BEZa kanpo.

10. KONTRATUAREN LIZITAZIORAKO OINARRIZKO AURREKONTUA

1. **Lotea: Lizitaziorako oinarrizko aurrekontua**, BEZa barne: 431.183,38 euro.
   a) Kostu zuzenak: 344.946,70 euro.
   - Langileria kostuak: 327.699,36 euro.
   b) Zeharkako kostuak: 86.236,68 euro.

2. **Lotea: Lizitaziorako oinarrizko aurrekontua**, BEZa barne: 236.428,40 euro.
   a) Kostu zuzenak: 189.142,72 euro.
   - Langileria kostuak: 182.049,86 euro.
   b) Zeharkako kostuak: 47.285,68 euro.

3. **Lotea: Lizitaziorako oinarrizko aurrekontua**, BEZa barne: 30.827,00 euro.
   a) Kostu zuzenak: 24.661,60 euro.
   - Langileria kostuak: 23.428,52 euro.
   b) Zeharkako kostuak: 6.165,40 euro.

Guztira: 698.438,78 euro, BEZa barne.

11. FINANTZIAZIOA

1. Lotea:
   2021. urtea: 00600-92920-227.01.04 215.591,69 euro.
   2022. urtea: 00600-92920-227.01.04 215.591,69 euro.

2. Lotea:
   2021. urtea: 00000-34210-227.01.00 118.214,20 euro.
   2022. urtea: 00000-34210-227.01.00 118.214,20 euro.

3. Lotea:
   2021. urtea: 00000-23000-227.01.01 15.413,50 euro.
   2022. urtea: 00000-23000-227.01.01 15.413,50 euro.

   Kontratazio espedientea kontratua indarrean sartu baino aurreko ekitaldian izapidetua izan denez, kontsignazio nahiko izatearen baldintza etenarazlearen menpe geratzen da.

12. PREZIOA ZEHAZTEKO SISTEMA

Oroharreko prezioa.

13. PREZIOAK BERRAZTERTZEA

Ez dagokio.

II. KONTRATATZEKO BALDINTZAK

14. GAITASUNA

Pertsona natural edo juridikoak beren estatutuen edo fundazio-arauen arabera berezkoak dituzten xede, helburu edo jarduera-eremuaren barruan dauden prestazioak dituzten kontratuen esleipendun izan daitezke soilik.

15. ENPRESA-GAIKUNTZA

Ez da eskatzen.

16. KAUDIMENA

16.1 Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa

- Irizpidea: Negozioen urteko bolumena, amaitutako azken hiru negozio-bolumenik handiena duen urteari dagokiona.
- Gutxieneko baldintza: Bolumen handieneko urteko negozio bolumenaren zenbatekoa ez izatea kontratuaren balio zenbatetsiaren bat eta erdi baino handiagoa.
- Egiaztapena (esleipendunak aurkeztu beharreko agiriak): Erantzukizuneko aitorpena honela aurkeztuko da:

  a) Onartutako eta Merkataritzako Erregistroan edo enpresaburuak izena eman behar duen Erregistro Ofizialean gordetako urteko kontuetan ageri diren balioak jarri behar dira. Bermeoko Udalak dagokion erregistroan sartuz egingo ditu egiaztapenak.

  b) Baliozko arrazoi batengatik, enpresa lizitatzaileak ez badu urteko konturik onartu eta gordailuan utzitako azken 3 urteetatik gorako zenbatekorik (adibidez, dagokion erregistroan kontuak aurkezteko obligaziorik ez duelako edo enpresa sortu berria delako), adierazpenean arrazoia adierazi beharko du.

  c) Merkataritza-erregistroan inskribatuta ez dauden banakako enpresaburuek eta aurreko paragrafoan aipatutako baliozko arrazoia adierazi duten enpresaburuek beren kaudimen ekonomikoa eta finantziarioa egiaztatu beharko dute, eta, horrez gain, erantzukizuneko aitorpenaz aparte, 303 eta/edo 390 ereduak edo Balio Erantsiaren gaineko Zergaren aitorpenaren 200 eredua edo baliokidea aurkeztu beharko dituzte.

  (Oharra: Urteko negozio bolumena merkataritzako legerian ezarritako urteko kontuen erregelamenduzko ereduetako galdu-irabazien kontuan ageri den negozio zifraren zenbateko garbia da).

16.2 Kaudimen teknikoa eta profesionala

- Irizpidea: Kontratuaren xede diren zerbitzu edo klanetan esperientzia izatea.
- Gutxieneko baldintza: Azken hiru urteetan gauzatze handiena izan duen urtean metatutako urteko zenbatekoa, kontratuaren batez besteko urteko ordainketaren % 70 edo gorakoa izatea.

- Egiaztapena (esleipendunak aurkeztu beharreko agiriak): Kontratuaren xede diren zerbitzu edo lan nagusien zerrenda (baldintza agiri administratiboen eranskinean dagoen ereduari jarraiki), azken hiru urteetako gauzatze handieneko urteari dagokiona, zerbitzu edo lan horien zenbatekoa, datak eta hartzailea, publikoa edo pribatua, jasotzen dituena. Zerbitzu edo lan horiek organo eskudunak luzatutako edo ikus-onetsitako ziurtagirien bidez egiaztatuko dira, hartzailea sektore publikoko erakunde bat denean; eta hartzailea subjektu pribatua denean horrek emandako ziurtagiriaren bidez.

17. KAUDIMENA ORDEZKA DEZAKEEN ENPRESA-SAILKAPENA

1. Lotea zerbitzu-kontratista gisa sailkatzea:

   Taldea: U, Azpitaldea: 1, Kategoria: B (2. kategoria, lortutako sailkapena 2015eko azaroaren 5a baino geroagokoa bada).

2. Lotea zerbitzu-kontratista gisa sailkatzea:
   Taldea: U, Azpitaldea: 1, Kategoria: A (1. kategoria, lortutako sailkapena 2015eko azaroaren 5a baino geroagokoa bada).

3. Lotea zerbitzu-kontratista gisa sailkatzea:
   Taldea: U, Azpitaldea: 1, Kategoria: A (1. Kategoria, lortutako sailkapena 2015eko azaroaren 5a baino geroagokoa bada).

III. LIZITAZIOA

18. ESLEITZEKO PROZEDURA ETA MODUA

- Prozedura: Irekia.
- Tramitazioa: Arrunta.
- Esleitzeko era: Zenbait irizpideren araberako esleipena.
- Aurretiazko tramitazioa: Bai. Esleipena kontratua finantzatzeko baliabideak benetan finkatzearen mende dago.

19. LIZITAZIOAREN PUBLIZITATEA

- Bermeoko Udaleko kontratugilearen profila: http://www.bermeo.eus
- Euskadiko kontratazio publikoko plataforma: https://www.contratacion.euskadi.eus/
- EBAOn argitaratzea: Bai.

20. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO EPEA ETA LEKUA

LEKUA: Kontratugilearen profilean, lotura honen bidez: http://bermeo.eus/1470.html

EPEA: Egutegiko 30 egun, iragarkia Europar Batasuneko Argitaratze Bulegora bidaltzen den egunetik zenbatzen hasita.

Artxiboei, honako izen orokorra jarriko zaie, artxibo bakoitzak edukiko duen azpitituluaren kalterik gabe:

GARBIKETA KONTRATUA. "A" ARTXIBOA. DOKUMENTAZIO OROKORRA
GARBIKETA KONTRATUA. "B" ARTXIBOA. BALIO-JUDIZIOZKO IRIZPIDEAK
GARBIKETA KONTRATUA. "C" ARTXIBOA. PROPOSAMENA

21. KONTSULTAK ETA ARGIBIDEAK

Kontsultak aurkezteko modua: idazkaritzakoaot@bermeo.eus helbide elektronikora idazki bat bidaliz, baldintza agiri administratiboen eranskineko ereduaren arabera.

Kontsultak aurkezteko epe muga: eskaintzak aurkezteko azken eguna baino 10 egun natural lehenago.

Lizitatzaile guztientzat interesgarriak diren egindako kontsulten erantzuna Bermeoko Udalaren kontratatzailearen profilean argitaratuko da: http://www.bermeo.eus

Kontsulten izaera loteslea: Bai.

22. DOKUMENTAZIOA AURKEZTEKO MODUA

Artxibo elektronikoak: Hiru artxibo izango dira.

A ARTXIBOA: Erantzukizunpeko aitorpena. Artxibo bakarra aurkeztuko da, nahiz eta lote bat baino gehiagora aurkeztu.

B ARTXIBOA: Balio-judizio bidezko irizpideak. Aurkezten den lote kopuru adina artxibo aurkeztuko dira.

C ARTXIBOA: Automatikoki kuantifika daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa. Aurkezten den lote kopuru adina artxibo aurkeztuko dira.

Artxibo guztiak digitalki sinatu behar dira.

23. LIZITATZAILEEN PROPOSAMENA: AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

A ARTXIBOA: Erantzukizunpeko aitorpena

Erantzukizunpeko adierazpena Bermeoko Udalaren aurrean, I. eranskinean dagoen ereduaren arabera.
DEUC dokumentua: Kontratazioari buruzko Europako agiri bakarra (DEUC) aurkeztuko da.
ABEE: ABEEren kasuan, aldi baterako enpresa-elkartea eratzeko konpromiso-eredua aurkeztuko da (Baldintza agiri administratiboen eranskinetan azaltzen den ereduaren arabera, behar bezala beteta).

*** Oharra:** ABEEren kasuan edo kaudimena kanpoko bitartekoekin integratuz gero (SPKLren 75. artikulua), DEUC bat.

Proposamenak aurkezteko epea amaitzen den eguna hartuko da erreferentzia moduan kontratatzeko legez eta plegu honetan eskatzen diren baldintzak betetzen direla egiaztatzeko.

B ARTXIBOA: Balio-judizio bidezko irizpideak

Aukeratutako lote adina B artxibo aurkeztuko dira.

Artxibo honetan inola ere ez da jasoko eskaintza ekonomikoaren agiririk, ez eta formula bidez kuantifikatu ahal diren irizpideei buruzko alderdirik ere.

Dokumentu horiek artxibo honetan sartzea lizitaziotik baztertzeko arrazoia izango da. Enpresa lizitatzaile bakarra egonez gero, Kontratazio Mahaiak erabakiko du.

C ARTXIBOA: Formula bidez kuantifikatu daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa

Aurkezten den lote kopuru adina proposamen aurkeztu beharko dira.

Artxibo honetan, eskaintza ekonomikoa eta automatikoki ebalua daitezkeen gainerako irizpideak aurkeztu beharko dira, eranskinean ezarritako ereduari jarraiki.

Eranskinean ezarritako eredua aldatzen duten eskaintzak aurkezteak, lizitaziotik kanpo gelditzea ekarriko du. Enpresa lizitatzaile bakarra egonez gero, Kontratazio Mahaiak erabakiko du.

24. BEHIN-BEHINEKO BERMEA

Ez da eskatzen.

IV. ESKAINTZAK BALORATZEKO ETA ESLEITZEKO IRIZPIDEAK

25. ESLEIPEN IRIZPIDEAK

- Prezioa: % 70.
- Ingurumen kudeaketarako praktika onak sistematikoki aplikatzea bermatzen duen ziurtagiria edo prozedura eta lan-praktikak izatea: % 4.
- Ekoetiketadun garbiketarako produktu kimikoak erabiltzea: % 3.
- Paper higienikoak eta eskuak lehortzeko papera % 100 birziklatua eta klororik gabekoak izatea: % 2.
- Ekoetiketadun, hondakin arabera koloredunak eta % 100 birziklatutako sastar poltsak erabiltzea: % 1.
- Zerbitzu antolamenduari buruzko plana: % 10.
- Lan-bizitza eta familia bateragarritasunerako programa: % 10.

25.1 Automatikoki ebaluatu ezin diren irizpideak (0- 20 puntu)

Lizitatzaileek kontratuaren xedea ezagutzen dutela baloratzeko eta gaitasun teknikoa zein antolakuntzakoa ebaluatzeko, automatikoki ebaluatu ezin diren irizpide hauek erabiliko dira.

a) Zerbitzu antolamenduari buruzko plana: 0-10 puntu

Lanak burutzeko programa baloratuko da (prozedurak, lanaren antolamendua eta horren justifikazioa, kronogramak, produktuak, etb.).

b) Lan-bizitza eta familia bateragarritasunerako programa (0-10 puntu):

Atal honetan enpresak beharginen lan-bizitza eta familia bateragarri egiteko hartzen dituen neurriak azaldu beharko ditu. Neurri hauen artean lan-jardunaldi/ordutegiaren malgutasuna, aukeren berdintasunerako neurrien sustapena, laneko jazarpen aurkakoak, etb. baloratuko dira.

25.2 Automatikoki ebaluatzeko irizpideak (0-80 puntu)

a) Eskaintza ekonomikoa (70 puntu):

Beherapenik handiena lizitazio prezioaren % 5 baino handiagoa bada, puntu guztiak baja portzentajerik handienari emango zaizkio, eta gainerako eskaintzei, bajaren portzentajearen proportzioan, formula honen arabera:

Pi = 70 x (Bi/Bm)

Beherapen handiena lizitazio prezioaren % 5 baino handiagoa ez bada, eskaintza bakoitzak bere baja-portzentajearekiko proportzioan lortuko ditu puntuak, formula honen bidez:

Pi = 70 x (Bi/5)

Aldagaien definizioa:
Pi = "i" lizitatzailearen puntuazioa
Bm = Gehienezko baja
Bi = "i" lizitatzailearen baja

Eskaintzak BEZik gabe baloratuko dira. Lizitazioaren prezio berdina duten eskaintzek 0 puntu jasoko dituzte.

b) Ingurumen kudeaketarako praktika onak sistematikoki aplikatzea bermatzen duen ziurtagiria edo prozedura eta lan-praktikak izatea (4 puntu):

Lizitatzaileek erakutsi beharko dute kontratua betetzerakoan ingurumen kudeaketarako praktika onak sistematikoki aplikatzea berma dezaketela. Hori egiteko bi bide erabil ditzakete: batetik, kontratatuko den zerbitzuaren jarduerak egokiak direla ziurtatzen duen ingurumen-kudeaketarako ziurtagiri-sistema baten bidez (EMAS, ISO-14001, Ekoscan edo baliokideak) edo, bestela, zerbitzuarekin lotutako ingurumen-araudia eta ingurumenaren zaintza bermatzen duten prozeduren eta lan-praktiken bidez.

c) Ekoetiketadun garbiketarako produktu kimikoak erabiltzea (3 puntu):

3 puntuarekin baloratuko da, zerbitzua ematean ekoetiketa duten produktu kimikoak erabiltzen badira.

d) Paper higienikoak eta eskuak lehortzeko papera % 100 birziklatua eta klororik gabekoak izatea (2 puntu):

2 puntuarekin baloratu da, paper higienikoak eta eskuak lehortzeko papera % 100 birziklatua eta klororik gabekoak izatea.

e) Ekoetiketadun, hondakin araberako koloredunak eta % 100 birziklatutako sastar poltsak erabiltzea (Puntu 1):

Zerbitzua prestatzerakoan ekoetiketadun, hondakin araberako koloredunak eta % 100 birziklatutako sastar poltsak erabiltzen badira, puntu batekin baloratuko da.

f) FORMULA BIDEZ EBALUATU EZIN DIREN IRIZPIDEETAN LORTU BEHARREKO GUTXIENEKO PUNTUAZIO-ATALASEA

Ez da eskatzen.

g) KONTRATUA ANORMALKI BAXUTZAT HARTZEKO IRIZPIDEAK

% 20ko beherapena kontratuaren lizitazio prezioaren gainean, BEZa sartu gabe.

V. KONTRATUAREN ESLEIPENA

28. AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIO ADMINISTRATIBOA

Kontratua esleitu aurretik, baldintza agiri administratiboen 27. klausulan adierazitako dokumentazio administratiboa aurkeztu beharko da.

29. BEHIN BETIKO BERMEA

Esleipen prezioaren % 5.

VI. KONTRATUAREN EXEKUZIOA

30. PREZIOAREN ORDAINKETA

- Ordainketaren aldizkakotasuna: hileko fakturak egingo dira, hilabete bakoitzean benetan egindako lanari dagokionaren arabera.
- Ordaintzeko modua: dagokion faktura aurkeztu ondoren egingo da, baldintza-agirien 9. klausulan xedatutakoaren arabera.

31. PREZIOAK BERRIKUSTEA

Ez dagokio.

32. EXEKUZIO BALDINTZA BEREZIAK

- Baldintza teknikoen agirietan, bere kasuan, exekuzio baldintza berezi gisa adierazitakoak.
- Izaera sozialekoak: baldintza agiri administratiboen 15. klausulan adierazitakoak.

33. AZPIKONTRATATZEA ETA LAGATZEA

Kontratuaren exekuzioa azpikontratatu eta laga daiteke, administrazio baldintza zehatzen orriko 17. atalaren arabera.

34. KONTRATUA ALDATZEA

a) Aurreikusitako aldaketak: interes publikoko arrazoiengatik aldatu ahal izango da kontratua, egoera hauetakoren bat gertatzen denean:

- Kontratua gauzatzeko eremu espaziala handitu edo murriztu beharra, hau da, eraikin edo instalazio berriak sartu edo kentzeagatik, edo egungo erabileren edo eskumenen aldaketagatik.
- Jasotako prestaziorako zenbatetsitako maiztasunak gehitzea edo gutxitzea.

Muga: kontratuaren prezioaren zein portzentajeri eragin diezaiokeen, gehienez ere, aldaketa horiek: % 20.

b) Aurreikusi gabeko aldaketak: interes publikoko arrazoiengatik aurreikusi gabeko aldaketak sartu ahalko dira soilik, eta 205. artikuluan aurreikusitako inguruabar eta mugetako batzuk gertatzen direnean.

Jarraitu beharreko prozedura: baldintza agiri administratiboen 19. klausulan adierazitakoa.

35. ZERBITZUA HARTZEA ETA BERME-EPEA

- Zerbitzua hartzeko epea: hilabete bat.
- Kontratua bermatzeko epea: kontratatzen diren zerbitzuek kontratuaren exekuzioaren amaieran beren prestazioak agortzen dituztenez, ez da beharrezkotzat jotzen berme-eperik ezartzea.

36. SUBROGAZIOARI BURUZKO INFORMAZIOA

Badagokio. Subrogatu beharreko langileei buruzko informazioa baldintza agiri administratiboen 13. klausulan azaltzen da. Bertan, zerbitzua ematen duen enplegatzaileak emandako jardunean ari diren langileen lan-baldintzei buruzko datuak jasotzen dira.

37. KONTRATUA AMAITZEKO ARRAZOI ESPEZIFIKOAK

1. Kontratua suntsiarazteko arrazoiak dira SPKLren 221. artikuluko a) idatz-zatitik i) idatz-zatira eta 313. artikuluan aurreikusitakoak.

2. Ebazteko arrazoi zehatzak hauek dira:

- Eskaintzan jasotako baldintzak ez betetzea.

- Baldintza agiri teknikoetan funtsezkotzat jotzen diren betebeharrak ez betetzea, hala badagokio.

- Baldintza agiri administratiboen 15. klausulan adierazitako kontratua gauzatzeko baldintza bereziak ez betetzea.

- Baldintza agiri administratiboen 12., 13., 14. eta 16. klausuletan adierazitako kontratuaren funtsezko betebeharrak ez betetzea.

38. DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA

Ez dago datu pertsonalen tratamendurik: kontratu hau gauzatzeko, esleipendunak ez ditu datu pertsonalak tratatuko.

39. KONTRATUA GAUZATZEKO HIZKUNTZA-BALDINTZAK

Kontratu hau Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuko 6. artikuluan ezarritako hizkuntza-ofizialtasun bikoitzeko erregimenari lotuta dago, eta azaroaren 24ko 10/1982 Legeak, euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizkoak, eta hori garatzen duen araudiak (azaroaren 19ko 179/2019 Dekretua, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa) arautzen dute; beraz, enpresak bete egin beharko ditu hizkuntza-eskubide horiek.

Udalaren eta enpresa esleipendunaren arteko harremanak, ahozkoak zein idatzizkoak, euskaraz izango dira.

40. ERREKURTSOAK

- Kontratazio gaietarako errekurtso berezia (SPKLren 44. artikuluak eta hurrengokoak).
- Administrazioarekiko Auzi Errekurtsoa (Administrazioarekiko Auzibidea arautzen duen 29/1998 Legea).

ZERBITZU KONTRATUAREN ADMINISTRAZIO-BALDINTZA ZEHATZEN ORRIAK
ARAUBIDE HARMONIZATUPEKO PROZEDURA IREKI BIDEZKO ESLEIPENA

I.- KONTRATUAREN EDUKINA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Kontratuaren xedea laburpen taularen **1.1 atalean** aurreikusitakoa izango da eta, kontratu honen bidez, **1.2 atalean** zehaztutako administrazio beharrizan hauek ase gura dira.

Kontratua, **1.3 atalean** jasotako loteetan banatuko da.

Kontratuaren xedea ikusita, zerbitzu administrazio-kontratua da, guzti hori Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 16. eta 25. artikuluak kontuan hartuta.

Kontratu hau burutzeko beharrizana zerbitzu hori garatzeko udalaren berezko baliabide pertsonal eta teknikoen faltan oinarritzen da. Gainera, aurretik dugun kontratua iraungi egingo da.

CPV: **1.4 atalean** zehaztutakoak.

Kontratua baldintza-agiri honetan oinarritzen da eta espedientean azaltzen den dokumentazio teknikoarekin bat etorriz egingo da. Baldintza-agiri honek kontratu-balioa du.

2. ORGANO ESKUDUNA

SPKLren 61. artikuluaren eta II. Xedapen Gehigarriaren arabera, kontratazio organoa laburpen taularen **3. atalean** zehaztutakoa da.

Organoak administrazio-kontratua esleitzeko ahalmena du eta, hortaz, kontratua interpretatzeko, betetzean sortzen diren zalantzak konpontzeko, herri-intereseko arrazoiak direla-eta aldatzeko, suntsiarazpena erabakitzeko eta suntsiarazpenaren ondoreak zein diren zehazteko ahalmenak ditu, ezargarri diren arauek ezartzen dutenari lotuta. Horren inguruan ematen dituen erabakiak betearazleak dira; nolanahi ere, kontratatzaileak auzibide eskudunera jo dezake aurka egiteko.

3. KONTRATUAREN ARDURADUNAK ETA KONTRATAZIO MAHAIA

Kontratu honen arduradunak laburpen taularen **6. atalean** zehazten dira, eta **kontratazio mahaia** laburpen taularen **7. atalean**.

4. ZERBITZUA BURUTZEKO EPEA

Zerbitzua egiteko epea laburpen taularen **8. atalean** jasotakoa izango da.

Zerbitzua ez bada epe horretan egiten, esleipendunak berandutzeagatiko erantzukizunei aurre egin beharko die, nahiz eta administrazioak aurretik ez ohartarazi.

Hala ere, kontratu hau iraungitzean, ez bada berria esleitu eta interes orokorreko arrazoiak badaude, esleipenduna derrigortuta egongo da kontratatutako baldintza berdinetan kontratuarekin jarraitzen, kontratu berria esleitu arte, beti ere gehienezko 9 hilabeteko epean, eta lizitazio iragarkia kontratua iraungi baino 3 hilabete arinago argitaratu bada; esleipen berria ahalik eta arinen gauzatu beharko da.

5. KONTRATUAREN BALIO ESTIMATUA

Kontratu honen balio estimatua, kontratuaren xede diren loteak kontutan edukita, laburpen taularen **9. atalean** jasotako moduan banatzen da.

Eta balio hori hartu da kontuan lizitazio prozedura eta egin beharreko publizitatea aukeratzeko.

6. KONTRATUAREN LIZITAZIORAKO OINARRIZKO AURREKONTUA

Kontratu honen lizitaziorako oinarrizko aurrekontua laburpen taularen **10. atalean** jasotakoa da, BEZa barne. Eta hori izango da kontratazio organoak konprometitu ahal izango duen gehienezko gastua, kontratu honi lotuta.

7. KONTRATUAREN PREZIOA

Kontratu honen prezioa adostutakoarekin bat eta benetan exekutatutako prestazioaren arabera ordainduko zaio kontratistari.

Prezioak BEZa barne hartzen duela ulertuko da, aparteko partida legez zehaztuko bada ere.

8. FINANTZIAZIOA

Kontratuaren prezioa ordaintzeko behar beste diru aurreikusi da 2021. urteko aurrekontuaren kontura eta, hurrengo ekitaldietako aurrekontuetan behar adina kreditu

jarriko ditu aurrekontu gaietan eskumena duen organoak. Kontratuaren indarraldia kreditu horiek izatearen mende gelditukо da.

Aplikagarria den partida laburpen taularen **11. atalean** zehaztutakoa da.

9. NOLA ORDAINDU

Ordainketak hilerokoak izango dira. Kontratistak bere faktura aurkeztuko du hilabeteko zerbitzuagatik eta transferentzia bidez ordainduko zaio, faktura onartzeko prozedura bete ondoren.

Fakturarekin batera, egindako zerbitzuen eta izandako istiluen lan-partea aurkeztu beharko da.

Gainera, ez badira eransten zerbitzu- kontratu honetan diharduten langileen TC1 eta TC2 kotizazio boletinen kopiak eta guztien soldatak ordaindu izanaren egiaztapenak edo baliokideak ez dira izapidetuko hileko fakturak.

10. PREZIOAK BERRAZTERTZEA

Espainiako ekonomia desindexatzeari buruzko martxoaren 30eko 2/2015 Legea eta berau garatzen duen otsailaren 3ko 55/2017 Errege Dekretuaren 9. artikuluan ezartzen denarekin bat etorriz, bai SPKLren 103. artikuluan ezarri denarekin bat etorriz, kontratu honi ez dagokio berrikuspena egitea.

11. BERMEAK

Behin-behineko bermea

Kontratuaren ezaugarriak kontutan edukita, ez da beharrezkoa ikusten behin-behineko bermea ezartzea parte hartzaileek proposamena mantentzen dutela bermatzeko, SPKLren 106.1 artikuluarekin bat.

Behin betiko bermea

SPKLko 107.1. artikuluan arautu denari jarraituta, ikuspegi ekonomikotik eskaintzarik onuragarriena aurkeztu duen lizitatzaileak egiaztatu behar du esleipenaren zenbatekoaren %5eko bermea eratu duela –BEZ eta luzapenak kenduta–, eta, horretarako, errekerimendua jaso duen unetik hasita, hamar egun baliodun izango ditu.

Errekerimendua epe barruan behar bezala bete ezean, lizitatzaileak eskaintza atzera botatzen duela ulertuko da.

Bermea eratu daiteke SPKLko 108. artikuluan adierazten diren moduetatik edozeinetan, eskudirutan, abal baten bidez, balore publiko zein pribatuekin, kauzio-aseguruaren bidez, edo prezioaren zati bat atxikita, HAKLEOko 55. artikuluan eta hurrengoetan jaso diren modu eta baldintzetan.

Bermea abal edo kauzio-aseguru baten bidez eratuz gero, sinadurak legeztatu egin behar dira. Fede-emaile publiko batek egiaztatuko eta askietsiko ditu sinatzaileen ahalordeak, eta atzealdean jarriko du horren gaineko eginbidea.

SPKLko 108.2. artikuluarekin bat etorriz, lizitatzaileak behin betiko bermea kontratuaren prezioaren zati bat atxikita eratzeko eska dezake: kontratistari ordaindu beharreko lehenengo fakturatik edo hurrengoetatik kopurua kenduko da, zenbateko osora heldu arte. Hartara, lizitatzaileak idatziz adieraziko dio hori kontratazio-organoari aipatutako zazpi egun balioduneko epean.

Egin beharreko zerbitzuak nolakoak diren jakinda, ez dago berme-aldirik. Hala ere, ez da behin betiko bermea itzuliko, harik eta kontratuaren indarraldia bukatu eta kontratuaren harrera formala egin arte. Horren arabera, bermea itzul daiteke osorik edo zati batez, SPKLren 111. artikuluak xedatzen duenarekin bat.

12. KONTRATUA BETETZEA ETA LANGILERIA ARLOKO BETEBEHARRAK

Baldintza-agiri honetan eta baldintza teknikoen agirian ezarritako moduan burutu beharko da kontratua.

Kontratua esleipendunaren gain eta kontura burutuko da, eta udalaren zuzendaritza, ikuskapen eta kontrolpean burutuko da, eta udalak idatziz nahiz ahoz erabili ahal izango ditu ahalmen horiek.

Esleipendunari edo honen agindupekoei egotz dakiekeen egite edo ez-egiteren baten ondorioz, administrazioak uste izaten badu kontratua behar bezala burutzea kolokan dagoela, kontratua behar bezala burutu dadin beharrezkotzat jotzen dituen neurriak hartu daitezela agindu ahal izango du.

Kontratua behar bezala exekutatzen dela bermatzeko, esleipendunak koordinatzaile bat izendatuko du eta, kontratuarekin zerikusia daukaten hartu-eman guztiak koordinatzaile horrekin izango dira zuzenean eta ez beste inorekin.

Zentzu horretan, kontratuaren exekuzioa era egokian burutzen ari dela bermatzeko eta beharrezkoak diren zuzenketak edota kontrolak egin ahal izateko udalaren aldetik, kontratuaren arduraduna eta esleipendunak izendatutako koordinatzailea hilean behin batzartuko dira udalak zehaztutako modu, egun, ordu eta lekuan.

Koordinatzaileak, eta ez beste inork, izango da batzar horien ondorioz edota udalak

ematen dituen agindu eta instrukzioen ondorioz, enpresak kontratua exekutatzeko kontratatuko dituen langileei beharrezkoak diren agindu, ohar eta zuzenketak egitearen arduraduna.

Esleipendunak, kontratua behar bezala exekutatzeko, beharrezko baliabide tekniko, pertsonal eta material izango ditu, eta bere ardura baino ez da izango hauek eduki eta kontratuak irauten duen denbora guztian zehar mantentzea, edota behar dituenak eskuratzea.

Hori horrela, besteak beste, kontratua exekutatzeko beharrezko langileak dituela bermatzeko, oporrak, gaixotasun, baimenak eta bestelako langileen eskubideak edo hutsuneak estaltzeko, ordezkapenak egiteko eta behar adina lan kontratu egiteko betebeharra izango du.

Esleipendunaren ardura izango da enpresa orok bere langileekin dituen betebeharrak betetzea eta horretarako neurriak hartzea. Ildo horretan, bere langileen soldatak ordainduko ditu; langileen baimen, opor eta librantza egunak onartuko ditu eta ordezkoak kontratatu; bere langileen lan arriskuei aurre egiteko beharrezko neurriak hartuko ditu; diziplina neurriak eta zigorrak hartuko ditu, beharrezkoa denean, eta langileen baldintzak negoziatuko ditu, legediarekin bat.

Betebehar guzti horien ondorioak enpresak berak hartuko ditu bere gain. Udalak ez du inolako parte hartzerik edukiko eta ezingo zaizkio udalari egotzi, ez zuzenean ezta zeharka ere.

Langileak udalak kanpora kontratatutako zerbitzu bateko direla argi egon beharko du uneoro eta, horretarako, egokiak diren identifikatzaileak erabili beharko dituzte soinean edo zalantza izpirik suposatzen ez duen soporteen bidez egin beharko dute identifikazio hori. Inolaz ere ezingo dira udal langileekin konfunditu eta esleipendunak horretarako bide, baliabide eta neurriak hartu beharko ditu.

Hartutako bide, baliabide edota neurriak nahikoak ez direla iritziko balitz, kontratuaren exekuzioa eteteko agindua emango du udalak, erabaki horren ondorioak esleipendunari egotzita.

Esleipendunak Bermeoko Udaleko zerbitzuei atxikitako langile guztien soldatak ordaindu beharko ditu legeak ezarritako epeetan.

Hori horrela, udalak edozein momentutan eska dakioke esleipendunari langileek sinatutako egiaztagiria aurkeztea, non adierazten duten soldatak epe barruan jaso dituztela. Esleipendunak ez badu erantzuten, ulertuko da soldatak ez direla ordaindu epe barruan.

Esleipendunak ez baditu epe barruan soldatak ordaintzen, udalak hurrengo zigorrak jar ditzake:

 Soldata ordaintzeko berandutza aste bete baino gehiagokoa bada: epe barruan ordaindu ez zaion langilearen aurreko hilabeteko soldata gordinaren %5a.

 Soldata ordaintzeko berandutza aste bi baino gehiagokoa bada: epe barruan ordaindu ez zaion langilearen aurreko hilabeteko soldata gordinaren %10a.

 Soldata ordaintzeko berandutza hilabete baino gehiagokoa bada: ulertuko da ez dela bete funtsezko kontratu-betebeharra; eta, beraz, kontratua suntsiarazteko arrazoia izango da 211.1. f) artikuluan adierazitako ondorioetarako.

 Urte bateko epean, baten baino gehiagotan, soldata ordaintzeko berandutza aste bi baino gehiagokoa bada: ulertuko da ez dela bete funtsezko kontratu-betebeharra; eta, beraz, kontratua suntsiarazteko arrazoia izango da 211.1. f) artikuluan adierazitako ondorioetarako.

Betebehar hauek, kontratuaren funtsezko betebehar legezko izaera daukate, SPKLren 211.1.f) artikuluak xedatzen dituen eraginetarako.

13. SUBROGAZIOA

Lizitatzaileei subrogazioak eragiten dien langileen kontratuen baldintzei buruzko informazio emango zaie. Informazio hori beharrezkoa izango da neurri horrek ekarriko dituen lan-kostuen ebaluazio zehatza egin ahal izateko. Informazio hori SPKLren 130. artikuluan eta apirilaren 7ko zenbait klausula sozial kontratazio publikoan sartzeko 3/2016 Legearen 6. artikuluan aurreikusitakoaren arabera emango da.

Aipatutako artikuluetan aurreikusitakoa betez, lege-arau, hitzarmen kolektibo edo eraginkortasun orokorreko negoziazio kolektiboaren bidez subrogatzeko betebeharrari buruzko informazioa jasota dago atal honetan.

Kontratu honen esleipendun den enpresak, ukitutako langileak enplegatzen baditu, arestian aipatutako informazioa eman beharko du, kontratuaren arduradunak eskatuta. Informazioaren zati gisa, subrogatu beharreko langileen zerrendak aurkeztu behar dira, honako hauek adierazita: aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboa eta langile bakoitzaren kategoriaren xehetasunak, kontratu-mota, lanaldia, antzinatasun-data, kontratuaren mugaeguna, langile bakoitzaren urteko soldata gordina, eta subrogazioak eragiten dien langileei aplikatu beharreko hitzarmen zein akordio guztiak.

Subrogazioa egin ondoren, lan-kostuak handiagoak badira aurreko kontratistak kontratazio-organoari emandako informaziotik ondorioztatzen direnak baino, kontratista berriak ekintza zuzena izango du aurreko kontratistaren aurka.

Era berean, urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Langileen Estatutuaren Legearen Testu Bateginaren 44. artikuluan ezarritakoa aplikatu ahal izango bada ere, kontratista behartuta dago subrogazioak eragindako langileei ordaindu gabeko soldaten erantzule izatera, baita sortutako gizarte-segurantzako kotizazioen erantzulea ere. Kasu horretan, aipatutako soldatak ez direla ordaindu egiaztatzen bada, administrazioak kontratistari zor zaizkion kopuruak atxikiko ditu, soldatak ordaindu direla egiaztatzen ez den bitartean.

Enpresa kontratistak konpromisoa hartzen du kontratua gauzatzen den bitartean Bermeoko Udalak kontratuaren xede den jarduera egiten duten langileei benetan aplikatzen zaizkien lan-baldintzei buruz eskatzen duen informazio guztia emateko.

Arau-hauste arintzat joko dira betebehar horiek ez betetzeak, eta kontratuaren aurrekontuaren % 10erainoko zigorra ekarriko du.

Arau-hauste larritzat kalifikatutako ez-betetzeak, kontratua suntsitzea eta kontratatzeko debekua adieraztea ekarriko du.

Betebehar hauek, kontratuaren funtsezko betebehar legezko izaera daukate, SPKLren 211.1.f) artikuluak xedatzen dituen eraginetarako.

Kasu honetan subrogatu beharreko langileen datuak hurrengoak dira:

- <u>1. Lotea:</u>

ID	Kategoria	Kontratu-kodea	Asteko lanaldia	Antzinatasun-data	kontratuaren mugaeguna	Urteko soldata gordina	Oharrak/ituna k
1	Garbitzaile a	20000	18,00	02-09-2000	-	11.136,85 €	
2	Garbitzaile a	50100	8,33	02-01-2019	-	5.371,58 €	Jaieguna
3	Garbitzaile a	10000	35,00	26-02-2008	-	19.541,39 €	

4	Garbitzailea	50100	30,00	22-08-2020	3 ordezten du	14.470,79 €	3 ordezten du
5	Garbitzailea	20000	33,00	20-02-2007	-	18.568,90 €	
6	Garbitzailea	250100	15,00	01-01-2018	-	8.732,68 €	Gaueko lana 7,5 ordu/aste
7	Garbitzailea	20000	33,00	07-09-2007	-	18.568,90 €	
8	Espezialista	10000	9,00	-	-	7.249,82 €	(39 ordu/hile) Ez-subrogagarria

- 2. Lotea:

ID	Kategoria	Kontratu-kodea	Lanaldiaren %	Antzinatasun-data	Urteko soldata gordina
1	Talde arduraduna	20000	82,86	01-03-2004	17.239, 67 €
2	Garbitzailea	50100	40,00	02-12-2015	8.221,54 €
3	Garbitzailea	28900	74,29	19-01-2016	13.503,36 €
4	Garbitzailea	20000	74,29	01-11-2006	14.869,45 €
5	Garbitzailea	20000	31,14	12-06-2007	6.869,45 €
6	Garbitzailea	51001	92,85	01-06-2017	14.886,26 €
7	Espezialista	10000	11 ordu/hile	01-06-2001	23.915,57 €
8	Espezialista	10000	11 ordu/hile	01-09-2001	23.915,57 €
9	Espezialista	10000	11 ordu/hile	03-11-2003	23.915,57 €
10	Espezialista	10000	11 ordu/hile	03-01-2005	23.600,51 €

- 3. Lotea:

ID	Kategoria	Kontratu-kodea	Lanaldiaren %	Antzinatasun-data	Urteko soldata gordina
1	Garbitzailea	20000	39,29	01-07-2009	7.483,85 €
2	Espezialista	10000	7 ordu/ hiruhilekoa	01-06-2001	23.915,57 €
3	Espezialista	10000	7 ordu/hile	01-06-2001	23.915,57 €

Aplikatu beharreko Hitzarmen Kolektiboa hurrengoa da: Bizkaiko eraikin eta lokalen garbiketa sektorearen hitzarmen kolektiboa (hitzarmen-kodea: 48001445011981), 32. zk BAOn argitaratua, 2020ko otsailaren 17an.

14. ESLEIPENDUNAREN BETEKIZUNAK, SEGURTASUN ETA OSASUN ARLOAN

Esleipendunak lanaren, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta higienearen arloan indarrean dauden legezko xedapenak bete behar ditu.

Kontratua exekutatzen hasi eta hurrengoko 5 egunetan, zerbitzu kontratu honek eragiten dituen langileak Gizarte Segurantzan altan emanda daudela egiaztatu beharko da, egokia den alta egiaztagiriaren bidez.

Betebehar hau ez betetzea kontratuaren exekuzioa eteteko agindua emateko zioa izango da, eta etena erabakitzearen ondorioak esleipendunari egotziko zaizkio osorik.

Bermeoko Udalak, urtarrilaren 30eko, 171/2004 Errege Dekretuak garatzen duen, azaroaren 8ko, Laneko Arriskuen Prebentziorako Legeko 24. artikulua, enpresa jardueren koordinazioaren arloko betekizunak bete behar ditu.

"Enpresaburu nagusiak beraren jarduerari dagokion eta beraren beharlekuan egiten diren obretako edota zerbitzuetako enpresa kontratistek eta azpi-kontratistek prebentzio arautegia betetzen dutela zaintzeko betebeharra dauka".

"Enpresaburu nagusiak bere lantokian batzen diren enpresa kontratista edo azpi-kontratistek euren artean beharrezko diren koordinazio bitartekoak ezarri dituztela konprobatu beharko du"

Aurreko araudia kontuan hartuta, laneko arriskuen prebentzio arloan koordinazio eta kooperazio lanak betetzeko helburuarekin, kontratuaren objektuan zehazten den jarduera hasi baino lehen esleipendunak administrazio baldintza agirien **XIII. eranskinean** zehazten diren agiriak kreditatu beharko ditu.

Jasotako agiriak, saileko arduradunak, Bermeoko Udaleko laneko prebentzio zerbitzura bidaliko ditu, aurkeztutako agiriak konprobatzeko.

Behin dokumentazio guztia ondo dagoenean, laneko prebentzio teknikariak **Koordinazio fitxa** bete eta sinatuko du eta esleipendunari bidaliko dio, beharrezko diren bestelako informazio fitxekin, honek sinatuta entregatu dezan.

Esleipendunak **Koordinazio fitxa** sinatuta bidaltzen duenean koordinazioa burututa geratuko da. Koordinazioa burututa dagoenean saileko arduradunari komunikatuko zaio esleitu den zerbitzua hasteko.

Ez da lanik hasiko koordinazio fitxa alde biak sinatu arte.

Administrazioak ez du inolako erantzukizunik izango xedapen horiek betetzen ez badira.

Modu berean, sektoreko hitzarmen kolektiboa osorik aplikatu beharko die kontratu honekin zerikusia duten langileei.

Kontratu honen xedea gauzatzeko esleipendunak eskaintzen duen langileria guztia esleipendunaren plantillan egon behar da eta ez du udalarekin inolako lan-loturarik izango.

Kontratua osotasunean betetzeko kontratista izango da zerbitzua behar bezala antolatzeko erantzulea. Gainera, bere langileen gizarte eta lan eskubideak bermatzen direnaren erantzule izango da. Horietan, udalak ez du inolako zereginik izango.

Esleipendunak, ahal duen neurrian, zerbitzu hau prestatzeko langileen estabilitatea mantendu beharko du. Langileren bat ordeztea beharrezkoa bada, bermatu behar du ordezkoak pleguetan eta kontratuetan zehaztutako baldintzak betetzen dituela. Udalari aldaketa horien berri eman beharko dio.

Esleipendunak betebehar horiek zehatz betetzen direla bermatu beharko du uneoro, baita kontratuaren zatiren bat azpikontratatuko balu ere, eta udalak, betebehar horiek betetzen direla bermatzeko, egokiak diren ikuskapenak egin eta egoki deritzon agiriak aurkezteko errekerimendua egiteko ahalmena izango du.

Berton ezarritako betebeharrak funtsezkoak dira eta ez betetzeak kontratua suntsiarazteko arrazoia suposa dezake. Hala ere, ulertzen denean ekintza isolatua dela, berreraman daitekeela eta suntsiaraztearekin interes orokorraren kontra joan daitekeela, suntsiaraztea alde batera utzi eta hurrengoko hertsapen-zigorra ezarriko da: esleitutako prezioaren (BEZa barne) % 1 eta % 5aren artekoa arau-hauste bakoitzeko. Portzentajea zehazteko orduan kontuan hartuko dira: larritasuna, berrerortzea eta fede txarra egon bada.

Zigor horietatik independientea da kontratua gauzatzeko egin beharrekoen ondorioz hirugarren batzuei eragindako kalte eta galera guztien kalte-ordainen gainean kontratistak duen betebeharra.

Zigor eta kalte-ordainok ezartzeko espediente zehatzaile laburtua burutuko da.

Ezartzen diren zigor edo kalte-ordainak berehala betearaziko dira eta zenbatekook kendu ahalko dira udalak esleipendunari ordaintzeko dauzkan fakturetatik,

behin betiko bermetik edota zuzenbide publikoko sarrerak jasotzeko legeak emandako edozein bidetik.

Edozelan ere, kontratistak administrazio-baldintza zehatzen orri honetan, baldintza teknikoen orrietan edota kontratuetan ezartzen diren bestelako obligazioak bete beharko ditu.

Betebehar hauek, kontratuaren funtsezko betebehar legezko izaera daukate, SPKLren 211.1.f) artikuluak xedatzen dituen eraginetarako.

15. EXEKUZIO BALDINTZA BEREZIAK

Kontratazio berrien % 10, gutxienez, lan merkatuan sartzeko zailtasunak dituzten pertsonentzat izango dira, besteak beste, honako profil hauetako batzuk:

- % 33ko edo hortik gorako ezgaitasun aitortua duten pertsonak.
- Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak.
- 45 urtetik gorako pertsonak, iraupen luzeko langabezian daudenak (12 hilabetetik gorakoak).

Pertsona horiek kontratuaren xede diren lanak egiteko behar diren gaitasun profesional eta pertsonalak izan beharko dituzte, eta kontratua gauzatzen duen plantillan sartu beharko dira, plantillako gainerako langileek dituzten lan baldintza beretan eta sektoreko hitzarmenaren arabera.

Horretarako, lan merkatuan sartzeko zailtasun partikularrak dituzten pertsonen kontratazioa egiaztatzeko, agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Kontratatutako langileen izenen zerrenda, Gizarte Segurantzako altaren eta lan-kontratuaren kopia, eta TC1 eta TC2en kopia.

b) Kontratatutako pertsona-kopurua, horien profila eta kontratazioaren ezaugarriak egiaztatzen dituen ziurtagiria (lanbide-kategoria, kontratuaren iraupena eta urteko lanaldia). Beharrezkoa izanez gero, egiaztapen hau eskatu ahalko da:

- <u>% 33ko edo hortik gorako ezgaitasun aitortua duten pertsonak:</u>

- % 33ko edo hortik gorako ezgaitasun mailaren ziurtagiriaren kopia, abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuaren edo haren ordezko arauaren arabera.
- Ezintasun iraunkorreko pentsioa, guztizko, erabateko edo baliaezintasun handiko graduan, edo zerbitzurako ezintasun iraunkorragatik erretiro-pentsioa onartzeko administrazio-ebazpenaren kopia.

- Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak:

Genero-indarkeriaren aurkako prebentzio eta babes integralerako neurriei buruzko azaroaren 26ko 13/2007 Legearen 30. artikuluan edo haren ordezko arauan ezarritakoaren araberako egiaztapena. Artikulu horren arabera, egoera hori frogatzeko bidea, ebazpen judizial baten ondorioz, funtsean, babes-agindua, kautelazko neurriak edo genero-indarkeriagatiko kondena-epaia egiaztatzeko agiria izango da, ezartzen diren neurriak indarrean daudenean.

- 45 urtetik gorako pertsonak, iraupen luzeko langabezian daudenak (12 hilabete baino gehiago):

- Indarrean dagoen NANaren kopia.
- Langabezia-egoera egiaztatzen duen ziurtagiri eguneratua, dagokion enplegu-bulegoak luzatua.

16. KONFIDENTZIALTASUNA

Kontratua betetzerakoan, bai kontratistak bai hari atxikitako pertsonek eta, hala badagokio, enpresa azpikontratistek eskuratzen duten informazio guztia isilpekoa da, eta sekretu profesionalaren betebeharraren mende dago, aplikatu beharreko araudiarekin bat etorriz; beraz, isilpean gorde behar da, eta ez da inolaz ere, ez osorik ez zati batean, kontratuaren parte ez den pertsona fisiko edo juridikoren bat ordeztu behar, aldez aurreko baimen espresua izan ezean.

Aurreko edozein pertsona fisiko edo juridikok konfidentzialtasun-betebeharra eta, hala badagokio, lanbide-sekretuaren betebeharra urratzen baditu, aplikatu beharreko araudiaren arabera, dagokion erantzukizuna eta kalte-galerak eskatuko dira. Klausula honetan adierazitako betebeharrekin bete beharko da, nahiz eta kontratu-harremana amaitu.

Nolanahi ere, datu pertsonalak tratatu behar ez diren lanetan, debekatuta dago datuetara sartzea, eta nahitaez isilpean gorde behar dira ezagut daitezkeenak.

Betebehar hauek, kontratuaren funtsezko betebehar legezko izaera daukate, SPKLren 211.1.f) artikuluak xedatzen dituen eraginetarako.

17. AZPIKONTRATATZEA ETA LAGATZEA

Kontratistak gainontzekoekin egin ditzakeen azpikontratuak egiteko, SPKLko 215., 216. eta 217. artikuluetan ezarri diren betekizunak beteko dira.

Behin kontratua esleituta eta, beranduen jota, kontratuaren exekuzioa hasterakoan, esleipendunak idatziz jakinarazi behar dio administrazioari azpikontratuak

azpikontratatuko duen prestazioaren zatia zein den, eta baita azpikontratistaren identitatea ere; eta egiaztatuko du beraren gaitasuna aski dela betetzeko, bai erabilgarri dituen osagai teknikoei, giza osagaiei eta baita eskarmentuari ere erreparatuta. Baldin eta azpikontratistak azpikontratatuko den kontratu-atala egiteko sailkapen egokia badu, kontratistak, hori jakinaraziz gero, ez du zertan haren gaitasuna justifikatu beharrik. Azpikontratistaren gaitasuna egiaztatzea azpikontratua egin eta berehala egin daiteke, baldin eta ezinbestekoa bada larrialdi-egoera bati aurre egiteko edo premiazko neurriak eskatzen baditu, eta hala zuritzen bada agiri bidez.

Kontratuaren exekuzioan zehar, emandako informazioan aldaketarik suertatuko balitz edota azpikontratu berriak egingo balira, horren berri eman beharko du berehala eta, azpikontratu berrien kasuan, beti, azpikontratatu den zati berria exekutatzen hasi orduko.

Kontratista nagusiak bere gain hartuko du kontratua betetzeko erantzukizun osoa Bermeoko Udalarekin; azpikontratistak kontratista nagusiaren aurrean baino ez dira erantzule izango. Kontratistak ezin du kontratua zati baten azpikontratatu, ordenamendu juridikoari jarraituta kontratatzeko gaitasunik ez duten pertsonekin, edo SPKLko 71. artikuluan jaso diren egoeraren baten dauden pertsonekin.

Esleipendunak proposamena aurkezterakoan jasotako azpikontratatzeko asmoekin bat ez datozen azpikontratuak, bai enpresa beste bat delako bai xedearen beste zati batzuen gainekoa delako, azpikontratuak ezingo dira egin udalari jakinarazpena eta justifikazioa bidali eta 20 egun igaro arte, beti be udalak ez badu aldez aurretik espresuki baimendu.

Kontratistaren erantzukizunpean, ez da beharrezkoa izango aurreko paragrafoan adierazitako 20 eguneko epea itxarotea azpikontratua burutzea ezinbestekoa bada larrialdi-egoera bati aurre egiteko edo premiazko neurriak eskatzen baditu, eta hala zuritzen bada agiri bidez.

Udalak frogatuko du esleipendunak kontratuan parte-hartzen duten azpikontratistei egin behar dizkien ordainketak bete direla. Horretarako, esleipendunak udalari bidaliko dio kontratuan parte-hartzen duten azpikontratisten zerrenda zehaztua, parte-hartzea burutzen denean, haietako bakoitzak dituen azpikontratatze-baldintzekin batera, ordainketa-aldiarekin zuzeneko harremana badute. Era berean, haiek ordaindu dituzten egiaztagiriak ekarri behar dituzte, behin prestazioa ematea bukatu denean legean ezarri diren epeetan; hain zuzen ere, SPKLko 216 eta 217. artikuluetan eta abenduaren 29ko 3/2004 Legean araututakoetan, ezargarri den neurrian.

Ordainketak SPKLko 216. artikuluak zehazten dituen eran egiten ez direla egiaztatuko balitz, udalak azpikontratistei zuzenean ordaintzeko aukera izango du, SPKLko LI. Xedapen Gehigarriaren 1. atalaren arabera. Ordainketa horien eragina

Xedapen Gehigarri berberaren 3. atalean zehaztutakoa izango dira, eta udalari ezingo zaio eragotzi 4. atalean adierazitako atzerapenaren erantzukizuna.

Betebeharrok kontratua betetzeko oinarrizko baldintzak dira, eta, bete ezean, ordenamendu juridikoan xedatu diren ondoreak sortu ez ezik, plegu honetan eta 215.3 artikuluan aurreikusitako zigorrak ipintzeko arrazoia izango da.

Kontratu honetatik jaiotzen diren eskubideak eta betebeharrak lagatzeko, SPKLko 214. artikuluan arautu denari jarraituko zaio.

Esleipendunaren ondorengotza emateko, SPKLren 98. artikulua hartuko da kontutan.

18. ESLEIPENDUNAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA BURUTZERAKOAN BESTE BATZUEI KALTEAK ERAGITEN BADIZKIE

Kontratua burutzen den bitartean, esleipendunaren ardura da edozein pertsona, jabetza edo zerbitzu publiko edo pribaturi egindako kalteak eta galerak bere gain hartzea, baldin eta bere agindupean dauden langileen egitez, ez-egitez nahiz zabarkeriaz, edo zerbitzua behar bezala ez antolatu, babestu edo bestelakoengatik gertatzen badira. Gauzak horrela, esleipendunaren ardura da kontratuko eragiketen ondorioz sor litezkeen kalteak eta galerak bere gain hartzea, Sektore Publikoaren Kontratuen 9/2017 Legearen 196. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

19. KONTRATUA ALDATZEA

Administrazioak kontratua aldatzeko ahalmena izango du laburpen taularen **34. atalean** jasotako kasuetan eta ezartzen diren mugekin, Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen 204. artikuluak ezarritakoaren arabera.

Aldaketa hauek ezingo dute hasierako prezioaren % 20a gainditu ezta hasierako kontratuaren izaera globala aldatu.

Kontratua arrazoi honengatik aldatzeko prozedura honakoa izango da:

1. Kontratuaren arduradunaren justifikazio txostena egin.
2. Kontratistari entzutea 5 egun balioduneko epean.
3. Kontu hartzailearen txostena egin.
4. Idazkari nagusiaren txostena egin.
5. Erabakia hartu eta esleipendunari jakinarazi.

Kontratazio plegu honetan edo iragarkian beren beregi aurreikusitako kasuez gain, SPKLren 205. artikuluan ezarritako kasu eta baldintza zehatzetan ere kontratua aldatu ahalko da.

20. ZERBITZUA HARTZEA ETA BERME-EPEA

Kontratuaren zerbitzu hartzea edo kontratuaren exekuzio egokiaren onespena, kontratua amaitu eta hilabeteko epean egingo da, SPKLren 210.2. artikuluarekin bat, horretarako udalak zehaztutako egun eta orduan.

Kontratuaren xedea dela eta, ez da berme eperik aurreikusten; izan ere, kontratatzen diren zerbitzuek kontratuaren exekuzioaren amaieran beren prestazioak agortzen dituztenez, ez da beharrezkotzat jotzen berme-eperik ezartzea.

21. ESLEIPENDUNARI EZARRI BEHARREKO ZIGORRAK BALDINTZAK BETETZEN EZ BADITU

A) KONTRATUA BURUTZEKO EPEAK DIRELA ETA

Esleipendunaren erruagatik, kontratua burutzeko epe osoa edo epe partzialak igarotakoan kontratua burutu gabe badago, administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera utzi eta bermea bereganatzea, edo kontratua burutu arte igarotzen den egun bakoitzeko diru-zigorra ezartzea: egunean 0,60 euro kontratuaren prezioaren 1.000,00 euroko (193.3. artikulua).

Atzerapenagatiko zigorren guztizko zenbatekoak kontratuaren prezioaren 100eko 5aren multiploren bat jotzen duen bakoitzean, kontratazio-organoak aukera izango du kontratua bertan behera uzteko edo zigor gehiago ezarri eta burutzapenean aurrera egin dadila erabakitzeko.

B) PRESTAZIOEN BURUTZAPEN PARTZIALA DELA ETA

Esleipendunak, bere erruagatik, kontratuko prestazioen burutzapen partziala epean bukatzen ez badu, administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera uztea eta behin betiko bermea atxikitzea edo hurrengoko zigorrak ezartzea (192.2. art).:

- Ez-betetze oso larrien kasuan, 500,00 euroko isuna jartzea. Ulertzen da ez-betetze oso larriak direla hurrengoak:

o Hornidurak egitea zehaztutako data baino zazpi egun beranduago, salbu eta ezinbesteko kasuetan.
o Agirikoa denean hornidurak ematen direla modu akasdunean edo irregularrean.
o Ez betetze sistematikoa epeetan.
o Udalaren agindu ofizialei jaramonik ez egitea.
o Ez betetzea plegu hauetan ezarritako edozelako baldintza edo epe, aurreikusitako bestelako ondorioen kalte barik.

- Ez-betetze larrien kasuan, 300,00 euroko isuna jartzea. Ulertzen da ez- betetze larriak direla hurrengoak:

o Hornidurak egiterakoan sistematikoa ez den ez betetzea egotea.

o Hornidurak egiterakoan albaranak ez entregatzea, albaranetan formazioa faltatzea edo albaranen informazioa ez izatea benetakoa.

o Ez betetze arinak errepikatzea.

- Ez-betetze arinen kasuan, 150,00 euroko isuna jartzea. Ulertzen da ez- betetze arinak direla hurrengoak:

Aurretik zehaztu ez direnak eta zentzu batean orrietan zehaztutako baldintzak kaltetzen direnean.

Zigorrok kontratazio organoak ezarriko ditu, espediente zehatzaile laburtua izapidetu ondoren.

Ezartzen diren zigorrak edo kalte ordainak berehala betearaziko dira eta zenbatekook kendu ahalko dira Udalak esleipendunari ordaintzeko dauzkan fakturetatik; behin betiko bermetik edota zuzenbide publikoko sarrerak jasotzeko legeak emandako edozein bidetik.

C) PRESTAZIOEN EXEKUZIO AKASTUNA

Esleipendunak kontratua akatsekin exekutatuko balu, ez betetzearen larritasunarekin bat datozen zigorrak ipiniko dira eta, bakoitzak, ezingo du kontratuaren prezioaren % 10 gainditu, ezta, zigor guztiak batera, % 50 (192.1. art.)

D) KONTRATUKO FUNTSEZKO BETEBEHARRAK EZ BETETZEA

Kontratua mugatzen duen prezio edo aurrekontuaren % 1 eta % 10 bitartean, ez-betetzearen larritasunaren arabera eta, hala badagokio, errepikatzearen arabera.

E) EXEKUZIO-BALDINTZA BEREZIAK EZ BETETZEA

Kontratua mugatzen duen prezio edo aurrekontuaren % 0,5 eta % 10 bitartean, ez-betetzearen larritasunaren arabera eta, hala badagokio, errepikatzearen arabera.

22. KONTRATUA AMAITZEKO ARRAZOIAK

Kontratua amaitzeko arrazoiak Sektore Publikoaren Kontratuen 9/2017 Legearen 211. eta 313. artikuluetan azaltzen direnak izango dira.

Horretaz gain, kontratua apurtzeko arrazoia izango da plegu honetako 12., 13., 14., 15 eta 16. ataletan xedatutako guztia ez betetzea eta modu berean, 25. atalean aurreikusitako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005

Legearen arabera sexu-diskriminazioan erori izanagatiko zigor- edo administrazio-arloko zigorra izatea.

Kontratua amaitzearen ondorioak 221. eta 313. artikuluetan aurreikusten direnak izango dira.

Hala ere, kontratu amaitutzat emanda ere, interes orokorreko arrazoiak badaude, esleipenduna derrigortuta egongo da kontratatutako baldintza berdinetan kontratuarekin jarraitzen, kontratu berria esleitu arte; esleipen berria ahalik eta arinen gauzatu beharko da.

23. ADMINISTRAZIOAREN ESKUBIDEAK

Administrazioari dagokio a) kontratua interpretatzea, b) kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, c) herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, d) kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, Sektore Publikoaren Kontratuen 9/2017 Legeak ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.

II.- KONTRATATZEKO JARDUNBIDEA

24. ESLEIPENA EGITEKO BIDEA ETA MODUA

Kontratu honen esleipena lehiaketa ireki bidez egingo da, SPKLaren 156. artikuluan eta hurrengokoetan ezarritakoarekin bat etorriz.

Prozedura arrunta izango da, SPKLren 116 eta 117. artikuluei jarraiki.

Esleipena egiterakoan, oinarritzat hartuko diren irizpide eta formulak, laburpen taularen **25. atalean** zehaztutakoak izango dira.

25. KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA

Zuzenbideko eta jarduteko gaitasuna duten pertsona fisiko zein juridikoek parte hartu ahal izango dute kontratazio-jardunbide horretan, baldin eta beren kaudimen teknikoa eta ekonomikoa frogatzen badituzte, eta kontratatzeko debekuren bat ez badute, SPKLren 71. artikuluan adierazitako arrazoiak direla eta.

Kaudimena egiaztatzeko eta ebaluatzeko bideak laburpen taularen **16. atalean** ezarritakoak izango dira.

Kaudimen orokorra, laburpen taularen **17. atalean** finkatutako sailkapenaz ordeztu daiteke.

Pertsona fisiko edo juridikoek beren kabuz edo baimendutako ordezkarien bitartez kontratatu ahal izango dute. Ordezkariek kontratatuz gero, berariaz emandako ahalorde askietsia erabili beharko dute. Pertsona juridiko baten ordez bertako kideren bat azaltzen denean, ordezkari izateko ahalmena duela frogatu beharko du agiri bidez. Bi kasuetan ere, kontratatzeko gaitasunik eza dakarten arrazoiak, gorago aipatutakoak, ordezkariari ere aplikatu behar zaizkio.

Gainera, lehiatzaileen jarduera nagusiak zerikusi zuzena izan behar du kontratu honen gaiarekin, eta haien erakundeak kontratua burutzeko behar beste giza baliabide eta baliabide material eduki behar ditu.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera sexu-diskriminazioan erori izanagatiko zigor- edo administrazio-arloko zigorra jaso duten enpresek ezin izango dute, zigorrak ezarritako aldian, deialdira aurkeztu.

26. DOKUMENTAZIOA AZTERTZEA ETA PROPOSAMENAK AURKEZTEA

Dokumentazioa aztertzea: Kontratazio honen espedientea, bai eta horrekin batera doan dokumentazio teknikoa ere, kontratugilearen profilean kontsultatu ahal izango da. Hona hemen lotura: http://bermeo.eus/udalaren_kontratuak.html.

Dokumentazio edota kontratazioaren gainean egiten diren kontsulta edo erantzunak lotesleak izango dira kontratazio organoarentzat eta kontratugilearen profilean argitaratuko dira SPKLaren 138.3 artikuluarekin bat.

Proposamenak aurkeztea: ondorengo moduan, lekuan, ordutegian eta epean aurkeztu beharko dira:

LEKUA: Kontratugilearen profilean, lotura honen bidez: http://bermeo.eus/1470.html

EPEA: Egutegiko 30 egun, iragarkia Europar Batasuneko Argitaratze Bulegora bidaltzen den egunetik zenbatzen hasita (156.2) art).

Lehiatzaileek hiru artxibo aurkeztu beharko dituzte. A, B eta C.

"A" artxiboan testu hau idatziko da: laburpen taularen **20. atalean** zehaztutako izena: GARBIKETA KONTRATUA. "A" ARTXIBOA. DOKUMENTAZIO OROKORRA.

Hona hemen A artxiboan aurkeztu beharreko agiriak:

a) Erantzukizunpeko adierazpena Bermeoko Udalaren aurrean, baldintza agiri administratiboen I. eranskinaren ereduaren arabera.

b) DEUC dokumentua.

Agiri hori, helbide elektroniko honetan eskuratu daiteke: https://visor.registrodelicitadores.gob.es/

c) Hala badagokio, ABEEren aitorpen eredua.

"B" artxiboan testu hau idatziko da: laburpen taularen **20 atalean** zehaztutako izena: GARBIKETA KONTRATUA. "B" ARTXIBOA. BALIO-JUDIZIOZKO IRIZPIDEAK.

Hona hemen artxibo honetan aurkeztu beharreko agiriak:

Balio-judizio bidezko irizpideak baloratzeko beharrezkoak diren dokumentuak.

"C" artxiboan testu hau idatziko da: laburpen taularen **20. atalean** zehaztutako izena: GARBIKETA KONTRATUA. "C" ARTXIBOA. PROPOSAMENA.

Hona hemen artxibo honetan aurkeztu beharreko agiriak:

a) **Proposamen ekonomikoa eta automatikoki ebalua daitezkeen gainerako irizpideak**, eskaintzaileak edo aurkezten duen pertsonak **sinatuta**, administrazio baldintza agirien III. **eranskin gisa agertzen den ereduaren arabera** idatzita.

Artxiboetan txertatzen diren agiri guztiak digitalki sinatuta joan beharko dira.

Ez dira onartuko proposamen hauek:

1) Kontraesanak, ez aipatzeak, akatsak edo zirriborroak dituztenak, administrazioak eskaintza aintzat hartzeko funtsezkotzat jotzen duena argi ikustea eragozten badute.

2) Aztertutako eta onartutako dokumentazioarekin bat ez datozenak.

3) Eskaintzaren aurrekontua edo gehienezko tasa gainditzen dutenak.

4) Proposamenaren zenbatekoan akats argia dutenak.

5) Pleguaren I eta III. eranskin gisa ezarritako proposamen ereduak nabarmen aldatzen dutenak.

6) Eskaintzailearentzat bidera ezin egiten duten akatsak edo funtsik ez dituztenak.

Letretan adierazitako eskaintza zenbakietan adierazitakoarekin bat ez badator, letretan adierazitako kopurua nagusituko da; dokumentazioa aztertu eta gero, arrazoizko irizpideak erabiliz, kontratazio mahaiak beste jarrera bat hartzen ez badu salbu.

Parte hartzaile bakoitzak proposamen bakarra aurkeztu ahal izango du. Hori betetzen ez duten parte hartzaileak kanporatu egingo dira.

Udalak edozein momentutan eskatu ahal izango du erantzukizunpeko adierazpenean jasotakoak betetzen direla agiri bidez justifikatzeko.

Esleipendunak, horretarako errekerimendua jaso eta 5 laneguneko epean aurkeztu beharko ditu eskatutako agiriak.

Proposamenak aurkeztearen ondorioak: Proposamenak aurkezteak, parte hartzaileak baldintza agiriak onartzen dituela eta administrazioarekin kontratatzeko baldintza guztiak betetzen dituela suposatuko du.

27. AGIRIAK SAILKATZEA, ENPRESAK AUKERATZEA ETA PROPOSAMENAK IREKITEA

Behin eskaintzak aurkezteko epea amaitu eta gero, kontratazio mahaiak epe eta modu egokian jasotako dokumentazio orokorra ("A" artxiboa) sailkatuko du, eta, dokumentazio orokorrean akats materialak sumatuz gero, hiru egun naturaleko epea emango dio lehiatzaileari akatsa zuzen dezan.

Akatsak zuzenduta edota horretarako epea igarota, horrelakorik egon izan balitz, eta eskaintzak aurkezteko epea amaitu denetik, hogei eguneko epean gehienez (157.3 art.), kontratazio mahaiak balio-judizio bidezko irizpideak jasotzen dituen "B" artxiboak zabalduko ditu eta dagokion teknikariak baloratuko ditu.

Jarraian, aurkeztutako proposamenak jasotzen dituzten "C" artxiboak jendaurrean irekiko dira, kontratazio mahaiak erabakitako egunean.

Aurkeztutako eskaintzak jendaurrean irekitzeko ekitaldiaren berri emango zaie aurretiaz lehiatzaileei, telefonoz, posta elektronikoz edo faxez, ez bada bide elektronikorik erabiltzen horretarako, beti ere kontratugilearen profilean aldez aurretik argitaratu ez bada eta argitaratutako eguna eta ordua aldatzen ez bada.

Proposamenak zabaldu orduko, balio-judizio bidezko irizpideen balorazioaren berri emango zaie lehiatzaileei.

Jarraian, kontratazio mahaiak jasotako eskaintzak modu beherakorrean sailkatuko ditu, horren arabera, kontratazio organora egokian den proposamena bideratzeko.

Baina proposamena bideratu baino arinago, eskaintzaren bat anormalki baxua den edo ez egiaztatu beharko da. Horretarako laburpen taularen **27. ataleko** irizpideak hartuko dira kontutan.

Eskaintzaren bat anormalki baxutzat emango balitz, SPKLren 149. artikuluan jasotakoak betetzen direlako, artikulu horretan jasotako prozedura jarraituko da, kontutan edukita lehiatzaileak 5 laneguneko gehienezko epea edukiko duela, komunikazioa jasotzen duenetik, eskaintza justifikatzeko.

Epe hori igarota, kontratazio mahaiak justifikazioak aztertu eta proposamena onartu edo kanporatzeko proposamen arrazoitua egingo du.

Kontratazio mahaiak esleipen proposamena egin eta gero, esleipena egin aurretik, puntu gehien lortu dituen parte hartzaileari errekerimendua egingo dio, 10 laneguneko epean agiri hauek aurkeztu ditzan:

a) Lehiatzailearen edo haren ordezkariaren nortasun-agiriaren fotokopia, eta horrez gain, beste pertsona edo erakunde baten izenean badihardu, notario-ahalordea.

b) Lehiatzailea pertsona juridikoa izanez gero:

- Dagokion Erregistro publikoan behar bezala erregistratutako eskritura edo eratze dokumentua, estatutuak edo sortze data.
- Administrazioarekin kontratatu ahal duela egiaztatzen duen ahalorde eskritura edo egiaztagiria, proposamena sinatzen duenaren alde.
- Sinatzailearen NAN agiriaren fotokopia.
- Espainiarrak ez diren enpresek, baldin eta Europar Erkidegoko estatu kideetakoak edo Europako Eremu Ekonomikoaren Ituna izenpetu duten estatuetakoak badira, jarduteko gaitasuna egiaztatu behar dute SPKLko 67 eta 68 artikuluetan xedatzen denaren arabera.

Berebat, atzerriko enpresek bulego bat irekita izan behar dute Espainian, eragiketak egiteko ahaldunak edo ordezkariak izendatu, eta Merkataritza Erregistroan inskribaturik egon.

Atzerriko enpresek adierazpena aurkeztu behar dute Espainiako edozein ordenako epaitegien eta auzitegien jurisdikzioaren menpe jartzeari buruz. Hori, kontratutik zuzenean nahiz zeharka sortzen diren gorabehera guztiei begira. Adierazpenean, halaber, uko egingo diote lizitatzaileari egoki lekiokeen jurisdikzio-foruari.

- Lizitazioan hainbat enpresaburuk hartuko badute parte aldi baterako batasun bat eratuz, bakoitzak bere nortasuna eta gaitasuna egiaztatu beharko ditu, eta izenpetzen duten enpresaburuen izenak, inguruabarrak eta bakoitzaren parte-hartzea zein diren adierazi. Berebat, batasunaren ordezkari edo ahaldun bakarra izendatu behar dute, kontratua hasi eta bukatzen den arte sortzen diren eskubideak eta betebeharrak betetzeko ahalmenarekin. Hala ere, enpresek ahalorde mankomunatuak ere eman ditzakete, kopuru handiko kobrantzak eta ordainketak egiteko.

c) Eskatutako dokumentu eta baliabideen bidez behar bezala egiaztatutako kaudimen tekniko edo profesionala (VII. eranskina).

d) Eskatutako dokumentu eta baliabideen bidez behar bezala egiaztatutako ekonomia eta finantza-kaudimena (VI. eranskina).

e) Zerga-betebeharrak nahiz Gizarte Segurantzakoak betetzen dituela kreditatzen dituzten ziurtagiriak.

f) Ekonomi Jardueren gaineko Zergan, kontratuaren gaiari dagokion epigrafean hain zuzen ere, alta eman diotela frogatzeko agiria aurkeztuko du, uneko ekitaldiko bada, edo EJZren azken ordainagiria edo salbuetsita egotearen egiaztagiria, gainerako kasuetan. Beti ere zerga horren matrikulan bajarik eman ez izanaren erantzukizunpeko adierazpena erantsiko da.

g) Behin betiko bermea aurkeztu.

h) Beste enpresen gaitasuna erabiltzeko asmoa agertu badu, enpresa horien konpromisoa aurkeztu, baliabide nahikoak izango dituela egiaztatzeko.

i) Kontratua exekutatzeko konprometitutako baliabideak benetan dauzkala egiaztatzeko agiriak aurkeztu.

* Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan edota Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Estatuko Erregistro Ofizialean izena eman badago, a), b), c), d), e) eta f) ataletan aipatutako dokumentazioaren ordez hau aurkeztu beharko da:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan edota Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Estatuko Erregistro Ofizialean izena emanda dagoen indarreko egiaztagiria.
- Egiaztagirian jasotako datuak eta egoerak baliozkoak diren eta indarrean dauden zinpeko aitorpena (XII. Eranskina).

Jatorrizko agiriak edo kopiak aurkez daitezke. Kopiak aurkeztekotan, administrazioak edo notarioak behar bezala kautotu edo egiaztatu behar ditu.

Horrela egingo ez balu, kontratuari uko egin diola ulertuko da eta zerrendako hurrengoari errekerituko zaio aurreko paragrafoan adierazitakoaren arabera.

Ondoren, kontratuaren arduradunak, bidalitako errekerimendua era egokian bete dela egiaztatuta, kontratazio mahaiak egindako esleipen proposamena kontratazio organora bideratuko du, esleipena egin dadin.

28. ESLEIPENA ETA FORMALIZAZIOA

Kontratazio organora proposamena bideratu eta esleipena egingo da. Esleipen irizpideak anitzak direnez, edo bakarra izanda bizi iraupenaren kostu baxuena denez, esleipena proposamenak zabaldu eta hurrengoko bi hilabeteko epean egin beharko da, ez bada baldintza agiri honetan beste epe bat finkatu.

Horrela egingo ez balitz, lehiatzaileek beraien eskaintzak erretiratzeko eskubidea izango dute eta horrek ez diete inolako eraginik sortaraziko.

Esleipen erabakia arrazoitua izango da eta parte hartzaile guztiei jakinaraziko zaie. Gainera, kontratugilearen profilean argitaratuko da egutegiko 15 eguneko epean.

Behin esleipena eginda, kontratua agiri bidez formalizatuko da. Kontratua ezin izango da formalizatu esleipenaren jakinarazpena lizitatzaileei bidali eta 15 egun baliodun igaro baino lehen.

Epe hori igaro eta kontratuaren formalizazioa etetea dakarren errekurtsorik aurkeztu ez bada, edo, hala badagokio, errekurtsoa ebazteko eskumena duen organoak etenaldia amaitu badu, esleipendunak kontratua formalizatzeko errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik hasi eta 5 eguneko epean formalizatu beharko du.

Esleipendunak epe horretan kontratua sinatuko ez balu, lizitazio prezioaren (BEZa kanpo) % 3ko zigorra ezarriko zaio, behin betiko bermearen kontura joango dena lehendabizi holakorik ezarrita egon ezkero.

Kasu honetan, hurrengoa geratu denari esleituko zaio kontratua, aurreko atalean zehaztutako errekerimendua egin eta bete ondoren.

Gainera ABEEa eratzeko asmoa agertu izan bada, ABEEa eratu izanaren agiria aurkeztu beharko da.

Aurkeztuko ez balitz, kontratuari uko egin diola ulertuko da eta bertan behera utzi ahal izango da, SPKLaren arabera, eta zerrendan hurrengo geratu denaren aldeko esleipena egingo da.

Hartzaileak jakinarazpena jaso duela ziurtatzen duen edozein bitartekoren bidez egingo da jakinarazpena. Zehazki, egin ahal izango da korreo elektronikoz, lehiatzaileek edo hautagaiek euren proposamenetan zehaztutako helbidean.

Kontratazio-organoak egingo duen esleipenaren bitartez, kontratuak indar juridikoa hartuko du.

Kontratua baldintza-agiri honetan oinarritzen da eta espedientean azaltzen den dokumentazio teknikoarekin bat etorriz egingo da. Kontratua formalizatzeko agirian ezingo da inola ere sartu esleipen irizpideak aldatzea eragingo duten klausularik. Nolanahi ere, kontratua eskritura publiko bihurtzeko eska dezake kontratistak, eta, orduan, bere kontura izango dira eskritura publikoak egiteak sortutako gastuak.

Kontratua formalizatu arte ezingo da berorri gauzatzen hasi.

Behin kontratua formalizatuta, formalizazioaren iragarkia eta kontratua bera kontratugilearen profilean argitaratutako da, gehienezko egutegiko 15 eguneko epean. Formalizazio iragarkia, SPKLren III. Eranskinean zehaztutako gutxiengo informazioa jaso beharko du.

Era berean, formalizazio iragarkia bidaliko da Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialera, kontratua formalizatu eta gehienezko egutegiko 10 eguneko epean.

Esleipendunaren erruagatik kontratua dagokion epe barruan formalizatu gabe geratzen bada, administrazioak ezarri duen behin behineko bermearen zenbatekoaren atxikipena adostu ahal izango du, behin betiko bermearen gainean.

29. KONTRATUARI ADMINISTRAZIOAK UKO EGITEA

Kontratazio organoak uko egiten badio deialdia egin ostean kontratu bat egiteari, edo esleipenerako prozedura berriz hastea erabakitzen badu, hautagaiei edo lehiatzaileei jakinaraziko die, SPKLren 152. artikuluarekin bat.

Kontratua egiteari uko egitea edo prozedura bertan behera uztea kontratazio organoak baino ezin dezake erabaki, kontratua formalizatu aurretik. Kasu bietan hautagaiei edo lehiatzaileei izan dituzten gastuak konpentsatuko zaizkie, iragarkian edo baldintza-agirian jasotako moduan, edo Administrazioaren erantzukizuna arautzen duten printzipio orokorren arabera.

Espedientean behar bezala justifikatutako interes publikoko arrazoiengatik baino ezin izango zaio uko egin kontratu bat egiteari. Kasu horretan, ezin izango da xede berarekin beste lehiaketarik sustatu uko egite horren oinarria izan diren arrazoiek bere horretan dirauten bitartean.

Prozeduraren uko egitearen oinarria kontratua prestatzeko arauetan edo esleipen prozedura arautzekoetan konpon ezin litekeen arau-haustea izan beharko da, eta arrazoi hori dagoela justifikatu beharko da espedientean. Uko egiteak ez du eragotziko beste lehiaketa prozedura bat hastea berehala.

III.- IZAERA, ERREGIMEN JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

30. IZAERA ETA ERREGIMEN JURIDIKOA

Baldintza-agiri honen arabera egin behar den kontratua administrazio-mailakoa izango da, eta kontratuan bertan zehazten ez den guztiari dagokionez, bereziki Sektore Publikoaren Kontratuen 9/2017 Legean ezarritako arauak bete beharko dira. Horiez gainera, Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra, eta bai herri administrazioen kontratazioan erabili beharreko gainerakoak ere.

Zentzu honetan, lizitatzaileak berariaz onartzen du sektore publikoko kontratuei buruz indarrean dagoen legeriarekin eta plegu honetan xedatutakoarekin bat etortzea.

Administrazio-baldintza zehatzen agiri honen eta espedientearekin batera doan dokumentazio teknikoaren artean kontraesanak izanez gero, agiri honetan zehaztutakoa nagusituko da.

Era berean, euskarazko eta gaztelaniazko testuen artean ezberdintasunik egongo balitz, euskarazko testuak dioenak izango du lehentasuna.

31. ERREKURTSOAK

Baldintza agirien eta kontratazio espedientean onartutako erabakien aurka, laburpen taularen **40. atalean** zehaztutako errekurtsoak aurkeztu daitezke.

32. JURISDIKZIO ESKUDUNA

Kontratutik sortzen diren auziak administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren menpe egongo dira. Nolanahi ere, bi alderdiek nahi izanez gero, auziak arbitrajearen bidez konpondu daitezke, indarrean dagoen legerian zehaztutakoarekin bat etorriz.